



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2022/2023 Denboraldia

27. ZIRKULARRA

KADETEEN EUSKAL KOPA - LAUKO FINALAREN ZOZKETA – FINAL ERDIAK ETA FINALA -

Gaurko egunean, eta denboraldi honetako 22. zirkularrean eta 26. zirkularrean ezarritako Lehiaketa Oinarrien eta Arau Erregulatzailen jarraipen gisa, Kadeteen Euskal Kopako Lauko Finala – Finalerdiak eta Finala zozketatu dira.

1.- KLUB PARTE-HARTZAILEAK (4)

Athletic Club, Deportivo Alavés, Real Sociedad de Fútbol eta Romo F.C.

2.- NON JOLASTUKO DEN

Finalerdiak eta finala Errenteriako Fanderia zelaian jokatuko dira.

3.- DATAK

Kadeteen Euskal Kopako Lehiaketa Oinarrien eta Arau Erregulatzailen arabera, finalerdiak partida bakarrera jokatuko dira ostiralean, hilak 19, eta finala igandean, hilak 21.

1. Finalerdia: ostirala, hilak 19, 17:00etan.

2. Finalerdia: ostirala, hilak 19, 19:15etan.

Finala: 1. finalerdiko irabazlea – 2. finalerdiko irabazlea, hilaren 21ean, igandea, 12.00etan.

4.- FINALERDIETAKO ZOZKETAREN EMAITZA

- 1- ATHLETIC CLUB – DEPORTIVO ALAVÉS
- 2- REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL – ROMO F.C.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

5.- BERDINKETAK

Balizko berdinketak Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorrean ezarrita dagoen bezala ebatziko dira, talde bakoitzak bost penalti botako lituzke, jaurtiketa alternatiboki eginik, hau da, lehenengo penaltia talde batek eta gero besteak, horrela talde bakoitzak dagokizkion bostak jaurti arte. Jaurtiketa hasi baino lehen, zein hasiko ote den jakiteko zozketa egingo da irabazlea aukeratuz nork jaurtiko duen lehen, eta ate berberaren aurrean jokalaria desberdinek jaurti beharko dituzte beraien taldeen penaltiak. Gol gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du. Bost jaurtiketak egin eta gero berdinketak jarraituko balu, jaurtiketak ordenu berean jarraituko dute, banan-banan, eta lehen jaurtiketak egin ez dituzten beste jokalaria batzuk egin beharko dituzte jaurtiketak, jaurtiketa kopuru berdina egin eta gero, bi taldeetako batek tanto baten diferentzia lortu arte, eta honela garaile izanik.

Jaurtiketa hauek aurreko luzapena bukatu eta gero zelaiean gelditzen ziren jokalariek bakarrik egin ditzazkete, edozeinek atezaina ordezkatzeko posibilitatea izanik.

Bilbo, 2023ko maiatzaren 15a

ALLICA

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General